



## **EUSKADIKO LIBURU ETA LIBURUTEGI ZERBITZUAREN WEB GUNEAREN AZTERKETA**

Egileak: Nere Erkiaga, Agurtzane Juanena, Maite Lopetegi, Gerardo Luzuriaga, Iñaki Urrutxurtu  
Joana Albret Bibliotekonomia Mintegiko kideak.

**2001eko Iraila**

# Euskadiko Liburu eta Liburutegi Zerbitzuaren web gunearen azterketa

Eusko Jaurlaritzaren 2000.eko oroitidazkian azaltzen den bezala<sup>1</sup>, Euskadiko Liburu eta Liburutegi Zerbitzuak Euskadiko katalogo kolektibo elebiduna eta euskarazko katalogazioa landu ditu. Horren fruituak aurtengo maiatzean aurkeztu den Kultura Ondarearen web gunean (<http://www.kulturaondarea.org>) ikusi eta kontsulta daitezke. Lan garrantzitsu horren azterketa da txosten honen helburua.

Mamian sartu aurretik esan behar dugu txostengileok ez dugula lan exhaustiborik egiteko asmorik izan. Erabiltzaile adituen ikuspegitik aritu gara web gunea kontsultatzen, atal guztiak erreparatu ditugu kontsulta puntualak eginez eta, metodologia gisa, zorizko laginketa erabiliz. Ikusi ahal izan duguna, hala ere, nahikoa esanguratsua iruditu zaigu ondorio batzuk ateratzeko. Horiexek azaldu nahi ditugu hurrengo orriotan.

1. [Web gunearen deskribapena](http://www.kulturaondarea.org) : <http://www.kulturaondarea.org>
2. [Web gunearen azterketa](#)
  - 2.1. [Dirulaguntzak](#)
  - 2.2. [Direktorioak](#)
  - 2.3. [Estatistikak](#)
  - 2.4. [Katalogoa](#)
    - 2.4.1. [Katalogo Kolektiboa](#)
    - 2.4.2. [Euskadiko Liburutegiak](#)
    - 2.4.3. [Bibliografia Ondarea](#)
    - 2.4.4. [Lege Gordailua](#)
  - 2.5. [Autoritateen katalogoa](#)
  - 2.6. [Euskaraz katalogatzeko arauak](#)
  - 2.7. [Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren aurkezpena](#)
  - 2.8. [Web gunearen euskararen kalitatea](#)
3. [Ondorioak](#)
4. [Laburki](#)

## ▲ 1. Web gunearen deskribapena : <http://www.kulturaondarea.org>

Web gune honetan Irargi (Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa) eta Euskal Kultura Ondarearen Zentroa badaude ere, gure lan esparruari dagokion Euskadiko Liburu eta Liburutegi Zerbitzuaren atalen deskribapenari ekingo diogu.

- *Informazioa*: Zerbitzuari buruzko informazioa, dokumentu elektronikoak eta Kultura Sailaren organigrama kontsulta daitezke, besteak beste.
- *Liburutegien Sistema Nazionala*: Sistemaren antolaketari buruzko informazioa, Euskadiko liburutegien direktorioa, Arabako bibliobusaren ibilbideak, liburutegien estatistikak eta Zerbitzuaren programak eta argitalpenak daude kontsultagarri.

---

<sup>1</sup> "Katalogo kolektibo elebiduna. Euskarazko katalogazioa: Euskadiko liburutegien katalogo kolektiboa garatu da. Katalogo elebidun informatizatu honek Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalari atxikitako liburutegietako ondarea biltzen du. Euskaraz ere katalogatzen hasi gara, lege gordailuko ondarea katalogatuz lehendabizi. Etengabe elikatzen den Euskadiko liburutegien katalogo kolektiboa, liburutegien datutegi nagusia da eta laster internet bitartez egongo da erabilgarri"(Oroitidazkia 2000 Memoria Gasteiz Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila, 2001. 14. or.)

- *Liburua*: Argialetxeen, idazleen eta ilustratzaileen direktorioa, Euskadi literatur sariak, dirulaguntzak, eta abarrei buruzko informazioa eskaintzen da.
- *www*: Liburu eta liburutegien inguruko gaii buruzko helbide elektronikoak.
- *Katalogoak*: Euskadiko Liburutegien Katalogo, Bibliografia Ondarearen Katalogo eta Lege gordailuaren Katalogorako sarbidea da, eta hauek biltzen dituen Katalogo Kolektiborakoa. Horrez gain, Autoritateen datu-basea eta Euskaraz katalogatzeko arauak (word formatuan) ere badaude.

## ▲ 2. Web gunearen azterketa

Web gunearen egitura argia da eta kontsultatzeko sistema azkarra, baina katalogoa kontsultatzeko komenigarriagoa litzateke URL helbidea zuzena izatea, bueltarik eman gabe zuzenean sartu ahal izateko. Liburu eta Liburutegi Zerbitzuari dagokion helbidea honakoa da: <http://www.kulturaondarea.org/libroybibliotecas/03default.htm>. Bide batez aipatu, web gunea lau hizkuntzatan kontsultatzerik badago ere, URL helbide hau gaztelaniaz soilik eman dela.

Eskaintzen diren informazio eta dokumentu guztietan luzatu gabe, gure ustez garrantzitsuenak diren alderdiak aztertuko ditugu hemen:

- Dirulaguntzei buruzko informazioa
- Direktorioak
- Estatistikak
- Katalogoa: katalogo kolektiboa
- Autoritateak: autoritateen datu-basea edo katalogoa
- Katalogazioa: katalogatzeko arauak.

### ▲ 2.1. Dirulaguntzak

Web guneak Euskadiko Liburu eta Liburutegi Zerbitzuak ematen dituen hainbat dirulaguntzen berri ematen du, baina badago gaur egungo teknologiek zerbizu osatuago bat eskaintzerik: alerta-sistema baten bidez interesatuta legokeenak izena eman eta bere posta elektronikoan ezagutu nahi dituen dirulaguntzen deialdien berri jaso litzake.

### ▲ 2.2. Direktorioak

Guztiz erabilgarria eta beharrezkoa den informazioa bildu da bi direktorio edo datu-baseetan. Batetik, argialetxeak, idazleak eta ilustratzaileak; eta bestetik, Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) liburutegiak. Bilaketa sistema ulerterraza dute biek, baina Euskadiko Liburutegien Direktorioari dagokionez, orain arte eman den hutsune handia betetzen duela aitortu behar bazaio ere, badu zenbait puntu zuzentzerik:

- Exhaustibitateari dagokionez, ez daude EAEko liburutegi publiko guztiak: bakarrik udal liburutegiak, eskoletakoak eta unibertsitateetakoak daude. Dokumentazio zentro eta liburutegi espezializatu gehienak falta dira (bospasei bakarrik agertzen dira) eta, gainera, oinarri-oinarizko datu bat falta zaie: zein den bakoitzaren tipologia. Bestalde, eremu geografiko aldetik EAEko eremura mugatzen da, ez dago Euskal Herriko gainerako lurraldeetako bibliotekei buruzko daturik.
- Hizkuntzari dagokionez: liburutegien izenak gaztelania hutsean daude eta helbideak ez daude bateratuta: gehienak gaztelaniaz daude eta bakarren batzuk euskaraz. Hona hemen, adibide gisa, Gipuzkoako udal biblioteken zerrendan ageri den lehen aipamena: Biblioteca Municipal de Abaltzizketa.

## ▲ 2.3. Estatistikak

Aspaldiko egitasmoa zen EAEko liburutegiei buruzko estatistika-ikerketak egitea, beharrezkoa baita liburutegien benetako egoera ezagutu eta dagokion liburutegi politika diseinatzeko<sup>2 eta 3</sup>.

Dirudenez, orain estatistika programaren bidez lortutako datuak kontsulta daitezke web gunean. Dirudenez esaten dugu, eta litekeena da inoiz kontsultagarri egon izana, izan ere gu saiatu garen guztietan ez baitugu sartzerik izan. Azken aldiz saiatu garenean, honako hau izan da web guneak eskaini digun erantzuna: *“Servicio desactivado temporalmente mientras se procede a la carga de nuevos datos. En breve estará disponible y podrá consultar los gráficos y datos estadísticos disponibles en las bases de datos”* (mezu elebakarra, bestalde).

Dena den, inon ez dira azaltzen programaren nondik norakoak: zein liburutegik hartu duen parte, noizko datuak diren,... edozein estatistika lanek eman beharko lituzkeen azalpenak. Baina, batez ere non dago datu guzti horien emaitza eta konklusioa? Hori gabe, bertan esaten dena, “programa honen bidez, eta aurretik ezarritako hainbat adierazleri esker, liburutegiko errealitatearen irudi zehatza erraz lortu ahal da” ezinezkoa da. Programa aurrera ateratzeko berori erabili behar zuten liburutegiekin egon den koordinazio ezan sartu gabe, lortutako datuekin beste ezer ez bada egiten atal honek galdera ikur handi bat besterik ez du merezi.

## 2.4. Katalogoa : katalogo kolektiboa

**Katalogoa** izeneko atalean honako aukera hauek agertzen dira: Euskadiko Liburutegiak, Bibliografia Ondarea, Lege Gordailua, Autoritateen Katalogoa eta Katalogo Kolektiboa. Banan-banan aztertuko ditugu aukerok, Autoritateen Katalogoa izan ezik, bere ezaugarriek hurrengo puntu batean aztertzeraz eramanen baikaitu.

Hainbat katalogo kontsulta daitezke, batera edo banan-banan, baina proiektu honetan parte hartu duten liburutegiei buruzko informaziorik eza nabarmena da: inon ez da azaltzen katalogo bakoitzaren edukiarik buruzko xehetasunik, erregistro kopurua zein den, liburutegiko funts guztiaren katalogoa den ala ez, noiz egin den azken eguneratzea, eta beste hainbat datu.

### ▲ 2.4.1. EUSKADIKO LIBURUTEGIAK

Lazkaoko Beneditarren liburutegiak, Eresbil dokumentazio zentroak, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak (Eusko Jaurlaritza) eta 70 bat udal liburutegik osatzen dute.

Kontsultaren mekanika nahikoa ona da, arina eta erabilerraza. Baina ez da lortu erregistroen homogeneizazioa, errepikatuta agertzen dira eta katalogazio zein hizkuntza aldetik ritzpide desberdinen arabera katalogatuta. Beraz ezin esan kalitatezko katalogo kolektiboa denik, hainbat katalogoren bilketa baizik.

Hona hemen, adibide moduan, 1998ko liburu baten katalogazioa, 6 bider errepikatuta, eta sarrera nagusia emateko 3 aukera diferente dituen: titulua, Axular, eta Salaberri. Erreparatu, halaber, Axular bera ere 3 modu diferentetan ematen dela: *Axular, Axular, Pedro*, eta *Axular, Pedro de*.

1. AXULARREN historiak / prestatzailea, Patxi Salaberri Muñoa (1998)
2. Axular, Pedro, Axularren historiak / prestatzailea : Patxi Salaberri Muñoa (1998)
3. Axular, Axularren historiak / prestatzailea Patxi Salaberri Muñoa (1998)

<sup>2</sup> Lopetegui, Maite. EAEko liburutegi publikoen egoera. *Jakin*, maiatza-ekaina 2000, 118 zkia., 57 or.

<sup>eta 3</sup> Estrade, Eduardo. Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Politika. *Jakin*, maiatza-ekaina 2000, 118 zkia., 33-34 or.

4. Axular, Pedro, Axularren historiak / prestatzailea, Patxi Salaberri Muñoa (1998)
5. Axular, Pedro de, Axularren historiak / prestatzailea Patxi Salaberri Muñoa (1998)
6. Salaberri Muñoa, Patxi, Axularren historiak ()

Hizkuntzari dagokionez, gaztelania nagusitzen da deskribapen fisikoan zein pertsona eta erakundeen izenetan.

Eta pertsona eta erakunde izenak elebidun emateko beste etiketa bat sartu da sistematikoki (9XX), 7XX-an dagoena bikoiztuz:

Adibidez:

```

100      10
  SaAxular, Pedro
245      10
  SaAxularren historiak$C / prestatzailea : Patxi Salaberri Muñoa
260      0
  SaIruña$b : Pamiela$C, 1998
300
  Sa109 p.$C ; 19 cm
440      0
  SaSaio eta testigantza$V ; 32$p. Klasikoak 1
700      20
  SaSalaberri Muñoa, Patxi
900      20
  SaSalaberri Muñoa, Patxi
900      10
  SaAxular, Pedro

```

Hori nahikoa sistematikoki egin da, dokumentua euskal ondarekoa izan ala ez. Adibidez:

```

100      10
  SaHay, Louise L.
245      10
  SaAmate a ti mismo, cambiarás tu vida$b : manual de trabajo$C / Louise L. Hay ; edición de Glen
Kolb
260      0
  SaBarcelona$b : Urano$C, [1998]
300
  Sa183 p.$C ; 24 cm
650      4
  SaEmakumeak$X-Psikologia
650      4
  SaNork bere burua estimatzea
650      4
  SaAutoestima
650      4
  SaMujeres$X-Psicología
900      10
  SaHay, Louise L.

```

Baina ez da beti egin, ez dira 9XX etiketak erregistro guztietan agertzen. Beste adibide bat: erregistro bera 3 aldiz ageri da, modu diferentean katalogatuta. Erreparatu batez ere egileak eta gaisarrerak emateko moduari:

>>Euskadiko Liburutegiak - Aurkitutako erregistroak:3 (1/3)

1  
LAPHITZ, Frantzisko, Bi saindu heskualdunen bizia, San Inazio Loiolakoarena eta ... / Frantzisko Laphitz (1986)

2  
Laphitz, Frantzisko, Bi saindu heskualdunen bizia : San Inazio Loiolakoarena eta San Franzisko Zabierekoarena / Frantzisko Laphitz ; [edizio honen prestatzailea, Josu Pikabea ; atariko, Koldo Mitxelena] (1986)

3

Laphitz, Frantzizko, Bi saindu heskualdunen bizia : San Inazio Loiolakoarena eta San Franzizco Zabierekoarena /  
Frantzizko Laphitz ; [edizio honen prestatzailea, Josu Pikabea] (1986)

Lehenengo erregistroan:

008 950303s1986 esp 001 1cbaq d  
019 Sa847-86  
020 Sa84-7529-409-X  
035 Sa02420005138  
040 Sa0242  
080 24  
Sa929-05(460.15)  
100 20  
SaLAPHITZ, Frantzizko  
245 10  
SaBi saindu heskualdunen bizia, San Inazio Loiolakoarena eta ... /Sb Frantzizko Laphitz  
260 0  
Sa[S.l.]Sb : Euskal Editoreen ElkarteaSc, L.G. 1986  
300 Sa201 p.Sc ; 20 cm  
490 0  
SaKlasikoakSv ; 1  
600 28  
SaIgnacio de LoyolaSc, Santo  
600 28  
SaIgnacio de LoyolaSc, Santo

*(600 errepikatuta dago eta ez da euskaraz ageri, 900 etiketarik ez dago)*

Bigarren erregistroan:

001 ECC0030294  
008 980211s1986 esp 1 baq d  
019 Sa847-1986  
020 Sa84-7529-409-X  
035 Sa01340001278  
040 Sa0134  
080 24  
Sa891.69-96"18"  
080 24  
Sa929 Ignacio de Loyola, Santo  
080 24  
Sa929 Francisco de Asis, Santo  
100 10  
SaLaphitz, Frantzizko  
245 10  
SaBi saindu heskualdunen bizia : San Inazio Loiolakoarena eta San Franzizco ZabierekoarenaSc / Frantzizko Laphitz ; [edizio honen prestatzailea, Josu Pikabea ; atarikoa, Koldo Mitxelena]  
260 0  
Sa[S.l.]Sb : Euskal Editoreen ElkarteaSc, L.G. 1986  
300 Sa201 p.Sc ; 20 cm  
440 0  
SaKlasikoakSv ; 1  
500 SaAurkibidea=Indice  
700 11  
SaPikabea, Josu  
700 11  
SaMitxelena, Koldo  
900 11  
SaMitxelena, Koldo  
900 11  
SaPikabea, Josu 001  
ECC0030295

(Oharra –500 - bi hizkuntzetan dago ; 600 etiketarik ez, 900 berriz bai)

Hirugarren erregistroan:

|     |  |
|-----|--|
| 008 | 951020s1986 esp 1 baq d  |
| 020 | Sa84-7529-409-X  |
| 035 | Sa00390004205  |
| 040 | Sa0039   |
| 080 | 24   |
|     | Sa891.69-96"18"  |
| 080 | 24   |
|     | Sa929 Ignacio de Loyola, Santo   |
| 080 | 24   |
|     | Sa929 Francisco de Asís, Santo   |
| 100 | 10   |
|     | SaLaphitz, Frantzizko  |
| 245 | 10   |
|     | SaBi saildu heskualdunen bizia\$B : San Inazio Loiolakoarena eta San Franzizco Zabierekoarena\$C / Frantzizko Laphitz ; [edizio honen prestatzailea, Josu Pikabea] |
| 260 | 0  |
|     | Sa[S.I.]\$B : Euskal Editoreen Elkarte\$C, L.G. 1986   |
| 300 | Sa201 p.Sc ; 20 cm   |
| 440 | 0  |
|     | SaKlasikoak  |
| 700 | 11   |
|     | SaPikabea, Josu  |
| 900 | 11   |
|     | SaPikabea, Josu  |

(600 etiketarik ez dago, 900 berriz bai baina Koldo Mitxelenari 700 atera gabe)

#### ▲ 2.4.2. BIBLIOGRAFIA ONDAREA

Gasteizko Elizbarrutiko Seminarioko liburutegiak, Lazkaoko Beneditarren liburutegiak eta Loiola Santutegiko liburutegiak osatzen dute.

Euskal Bibliografia Ondarearen Katalogo hau nahikoa kontrolatuta dagoen *Catálogo Colectivo del Patrimonio Bibliográfico Español* delakoaren parte da: autoritateak homogeneoak dira, erregistro bakarra agertzen da nahiz eta ale bat baino gehiago egon.

Baina euskarari dagokionez, hemen ere antzera gertatzen da: deskribapenak erdaraz ageri dira eta egile batzuk (ez denak) bikoiztuta. Hona adibide batzuk:

|     |  |
|-----|--|
| 001 | ECC0230453   |
| 008 | 970623s1894 esp 000 0 baq d  |
| 035 | Sa20020008196  |
| 040 | Sa2002   |
| 080 | 24   |
|     | Sa821.361-14"15"   |
| 100 | 10   |
|     | SaEtxepare, Bernart  |
| 245 | 10   |
|     | SaLinguae vasconum primitiae\$C / per Bernardum Dechepare          |
| 260 | 0  |
|     | Sa[S.I.]\$B : Euskal Editoreen Elkarte\$C, 1984                    |
| 300 | Sa55 p.Sc ; 22 cm  |
| 503 | SaRepr. facs. de la ed. de: Burdingalae : Franciscum Morpain, 1545 |
| 900 | 10   |
|     | SaEtxepare, Bernart  |

Egile askoren izenak erdaraz daude (proportziorik ezin dugu eman):

|     |                              |
|-----|------------------------------|
| 001 | ECC0031389                   |
| 008 | 971124s1769 fraa 000 0 baq d |
| 035 | Sa20020016287                |

040           Sa2002  
100           1  
   SaEtcheberri, Ioannes d' (de Ciboure)  
245           10  
   SaBi-garren liburüa, guiristiñoac erran behar lituzquen othoitzezSb : gau, eta egun eguiciüe  
   othoitz devotioenez, galdetua, iaun puchantac, diçuen gogo onezSc / [Ioannes d'Etcheberry]  
260  
   SaBordelenSb : I. Mongiron Millanges, Erregueren ImprimintçailleareneanSc, 1769  
300           Sa213 p., [1] p. en bl.Sc ; 8°  
510           4  
   SaEnciclopedia general ilustrada del País Vasco. Cuerpo C, Eusko bibliographia / Jon  
   BilbaoSc, vol. III, p. 255  
593           1  
   SaEncabezamiento tomado de Jon Bilbao

Beste adibide bat:

01           ECC0006632  
008           971124s1761 esp 000 0 spa d  
035           Sa20020016277  
040           Sa2002  
100           2  
   SaCardaberaz Elgorriaga, AgustínSc, (S.I.)  
245           10  
   SaAita San Ignacioren egercicioen gaiñean afectoac, beren egemplo, ta doctrinaquin, edo  
   Egercicioen llen parteaSb : Jaincoaren ministro celosoai Jesusen Compañaco aita Agustín  
   Cardaberazec esqueñtcen ta dedicatcendiena  
260  
   SaIruñeanSb : Libruguille Antonio Castilla-ren EcheanSc, 1761  
300  
   Sa392, [4] p.Sb : il.Sc ; 8°  
597  
   1  
   SaSign.: A-N\p8\s, O\p2\s, P-Z\p8\s, 2A-2B\p8\s, 2C\p4\s  
597  
   1  
   SaPort. con anagrama xil. de la Compañía de Jesús

### ▲ 2.4.3. LEGE GORDAILUA

Web orrian azaltzen den bezala, *“Lege-gordailua Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzako menpeko erregistro bat da; funtsezko helburutzat du: Euskadin ekoizten den lan bakoitzaren ale-kopuru jakin bat gordetzea, horien oinarrizko ezaugarriak zehaztea eta lanak erabiltzaileen esku jartzea”*

Lege Gordailuaren katalogoa ez da exhaustiboa, hau da, katalogo honen barruan ez dago lege gordailuari dagokion produkzio guztia. Ez da harritzekoa, lan handia baita dena automatikoki katalogatuta izatea, baina hau ez litzateke arazoa izango nonbait azalduta agertuko balitz zein den katalogo honek hartzen duen esparrua. Azalpenik egon ezean, eta katalogoa arakatu ostean, katalogatzeko planifikazioa ere falta dela susmatu daiteke, adibidez: 1981tik 2000ra arteko lanak aurki daitezke, baina ezin da jakin urte bakoitzari dagokion produkzio osoa katalogatuta dagoen ala ez. Azterketa egin zen garaietan esaterako, urte bakoitzari zegokion erregistro kopurua hau zen: 1980an, alerik ez; 1981ean, erregistro bakarra; 1985ean, 4; 1990ean, 23; 1992an, 339; 1995ean, 2148; 1997an, 2247; 1999an, 1131; 2000an 165; eta 2001ean ezer ez.

Inork kontsultatuko balu, euskal ekoizpen bibliografikoaren ideia oker bat hartuko luke, beste azalpenik ezean.

Hizkuntzari dagokionez, web orriko testuan, Lege Gordailua euskaraz katalogatuta dagoela esaten da, baina hori ez da beti egia. Aurkitutako erregistro batzuk (liburuak, soinu erregistroak eta musika inprimatua) gaztelaniaz katalogatuta daude.

100           10  
   SaDescartes, René



240 10  
 \$aDiscours de la méthode\$l. Euskera

245 10  
 \$aMetodoari buruzko diskurtsoa ; Meditazio metafisikoak\$c / René Descartes ;  
 [euskaratzailea, Xabier Arregi ; berrikuslea, Joxe Azurmendi ; hitzaurregilea, Wolfgang  
 Röd]

250 \$a[1go argit.]

260 0  
 \$aBilbo\$b : Klasikoak\$c, 1997\$e (Bilbo\$f : Gestingraf)

300 \$a199 p.\$c ; 23 cm

500 **\$aPublicación subvencionada por la Comunidad Europea**

504 \$aBibliogr.: p. 29-31

650 4  
 \$aMetafisika

650 4  
 \$aMetafisica

700 21  
 \$aArregi, Xabier\$q (Arregi Iparraguirre)

700 11  
 \$aAzurmendi, Joxe

700 11  
 \$aRöd, Wolfgang

700 10  
 \$aDescartes, René

710 21  
**\$aComunidades Europeas**

730 00  
 \$aMeditationes de prima philosophia\$l. Euskera

740 00  
 \$aMeditazio metafisikoak

900 10  
 \$aDescartes, René

900 11  
 \$aRöd, Wolfgang

900 11  
 \$aAzurmendi, Joxe

900 21  
 \$aArregi, Xabier\$q (Arregi Iparraguirre)

900 10  
 \$aDescartes, René

*Erreparatu: oharra, deskribapen fisikoa, 710 Comunidades Europeas (non dago euskal forma?  
 Descartes bikoiztu da eta bestea ez?)*

Ondokoa, berriz, euskararen aldetik txukuna da:

245 00  
 \$aLaister\$b : Beasaingo Udaleko Kultur Batzordearen gida

260 0  
 \$a[Beasain] (Gipuzkoa)\$b : [Kultur Batzordea]\$c, [1992]-

300 \$alibk.\$c ; 22 cm

310 \$aHilabetekaria

500 \$aLiburutegian: (1996-1997), 1998-1999, (2000)

500 \$aIzenburua, azaletik hartua

500 \$aInprimategi-zigiluak aldaketak ditu.

500 \$aDeskribapenaren oinarria: 47. zka(1996ko abuztua)

546 \$aTestua, euskaraz eta gaztelaniaz.

710 11  
 \$aBeasain (Gipuzkoa)\$b. Kultur Batzordea.

Ondokoa, gaztelania hutsa:

111 20  
 \$aAraba Euskaraz\$d (2000\$c. Laudio)

245 10  
 \$aAraba euskaraz 2000\$h [Grabación sonora]\$b : [Laudio, ekainaren 18an]

260 0  
 \$a[Donostia]\$b : Elkarlanean\$c, L.G. 2000

300 \$a1 disco (CD-DA) (6 min., 17 seg.)\$b : estéreo\$c ; 12 cm

|     |  |
|-----|--|
| 306 | \$a000617  |
| 500 | \$aFonograma promocional no venal                                |
| 500 | \$aIncluye la letra  |
| 518 | \$aGrabación, mezclas y masterización, Sonora Estudios (Gasteiz) |
| 594 | \$aMusica de Egoitz Uriarte y letra de Beñat Mendiguren          |
| 596 | \$aProducido por la Ikastola de Laudio                           |

Eta baita hau ere:

|     |    |   |
|-----|----|---|
| 100 | 21 | \$aGoenaga Iribarren, Fernando\$d (1907-1990)   |
| 245 | 10 | \$aKaia barreanean\$h [Música impresa]\$c / Musika eta Hitzak, Fernando Goenaga ; arm. Javier Busto |
| 260 | 0  | \$aHondarribia\$b : bustovega\$c, D.L. 2000   |
| 300 |    | \$a1 partitura (3 p.)\$c ; 28 cm  |
| 500 |    | \$aMi b mayor   |
| 700 | 11 | \$aBusto, Javi\$c, armonizador  |

Nahaste handia dago katalogazio irizpideen aldetik. Egileak erregistro batzutan bikoiztuta agertzen dira (700, 900), beste batzutan berriz ez; deskribapen batzuk erdaraz eginak daude, beste batzuk euskaraz; gai-sarrerak bietara, gai-sarrera jarrita dagoenean...



#### 2.4.4. KATALOGO KOLEKTIBOA

Web gunean *Euskadiko Liburutegien Katalogo Kolektiboa* deitzen da katalogo hau, baina momentu honetan izen hori guztiz arranditsua da: kontsulta daitezkeen azpi-katalogoen zerrenda begiratzea besterik ez da behar liburutegi guztiak ez egoteaz gain, hainbat liburutegi garrantzitsu ere ez dagoela ikusteko. Lehentsuago aipatutako katalogo hauek biltzen ditu:

- Lege Gordailua
- Bibliografia Ondarea: Gasteizko Elizbarrutiko Seminarioko liburutegia, Lazkaoko Beneditarren liburutegia eta Loiola Santutegiko liburutegia
- Euskadiko Liburutegiak: Lazkaoko Beneditarren liburutegia, Eresbil dokumentazio zentroa, Euskal Kultura Ondarearen Zentroa (Eusko Jaurlaritza) eta 70 bat udal liburutegi

Katalogo honen kontsulta egin ondoren, honakoa azpimarratu nahi dugu:

- Hizkuntzari dagokionez, erregistro gehienak gaztelaniaz daude. Adibide batzuk:
  - a. Sarrera nagusia erakundeak direnean:
    - Centro Cultural Koldo Mitxelena. Biblioteca
    - Congreso de Actualización de la Enseñanza y Entrenamiento de la Pelota vasca (1. 1995. Vitoria-Gasteiz)
    - Congreso del Deporte de Euskadi. (1996. Santurtzi)
    - Donostia-San Sebastián. Biblioteca Municipal
    - Euskadi. Departamento de Educación, Universidades e Investigación.
    - Euskadi. Departamento de Educación y Cultura. Servicio de Euskera.
    - Euskadi. Parlamento.
    - Euskadi. Parlamento. Servicio de Bibliotecas y Archivos.
    - Exposición Cartográfica (3ª. 1990. Estella-Lizarra)
    - Jornadas de Onomástica. (1ª. 1986. Vitoria)
    - Semana de Estudios Medievales. (12ª. 1974. Estella-Lizarra)
    - Universidad de Oñati. Biblioteca
    - Universidad del País Vasco.
      - Vitoria-Gasteiz (Diócesis). Obispo (1889-1904: Ramón Fernández de Piérola y López de Luzuriaga)
      - La Habana (Diócesis). Obispo (18-19: Ramón Fernández de Piérola y Luzuriaga)
  - b. Deskripzio fisikoa:
    - 30 p. : gráf. ; 22 cm
    - 111 p. : fot. en bl. y n. ; 28 cm

3 vol. ; 34 cm  
1 carpeta (4 folletos) : il. col y n. ; 24 cm.

c. Eta oharrak:

Contiene abstract en inglés  
En port. : Edición aprobada por la Conferencia Episcopal Española  
En la port.: Departamento de Lógica...  
En la parte posterior de la cub. Eusko Jaurlaritza, Nekazaritza eta Arrantza Saila...  
Tit. tomado de la cub.  
Tesis Universidad del País Vasco  
Texto bilingüe en euskera y castellano  
Texto en español y vasco.

- Autoritateak nola kudeatu diren aztertuz gero, nabarmena da kontrol falta. Dirudenez, web gunean dagoen autoritateen katalogoa ez da erabili eta, besterik gabe, liburutegi batzuetako katalogoak irauli dira, kalitatea zaindu gabe. Horren ondorioz, dokumentu beraren erregistro desberdinak agertzen dira, eta egile beraren produkzio bibliografikoa puztuta agertzen da. Adibide batzuk ikus ditzagun:

a. Erakunde bera euskaraz eta erdaraz agertzen da

Eusko Legebiltzarra. Liburutegi eta Agiri Gordetegia.  
Euskadi. Parlamento. Servicio de Biblioteca y Archivo.

Gipuzkoa. Foru Aldundia  
Gipuzkoa. Diputación Foral

Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
Euskadi. Departamento de Educación, Universidades e Investigación

Euskal Herriko Unibertsitatea  
Universidad del País Vasco

b. Erakunde bera forma desberdinetan agertzen da

Gipuzkoa. Diputación Foral  
Diputación Foral de Guipúzcoa

Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.  
Euskal Autonomi Elkarte. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

País Vasco. Parlamento  
Euskadi. Parlamento

EUSKAL AUTONOMI ELKARTEA**s**. KULTURA ETA TURISMO SAILA  
Euskadi**s**. Kultura eta Turismo Saila

Koldo Mitxekena Kulturunea. Liburutegia  
Koldo Mitxelena Kulturunea. Biblioteca  
Centro cultural Koldo Mitxelena. Biblioteca

Udal Liburutegia (Donostia-San Sebastián)  
Donostia-San Sebastián. Biblioteca Municipal  
Biblioteca Municipal (Donostia-San Sebastián)

- c. Egile bera hainbat eratan agertzen da: letra larriz eta xehez, abizen bat edo birekin, euskal edo gaztelaniazko grafiarekin, etab.

Kanpion, Arturo  
Campión Jaime-Bon, Arturo  
Campion, Arturo

Aldecoa, Ignacio (1925-1969)  
Aldecoa, Ignacio  
Aldekoa, Iñaki

(Kasu honetan, gainera, egile bi dira eta ez bat: Ignacio Aldecoa 1969an hil zena, eta Iñaki Aldekoa, UPVko irakasle eta Ereineko argitalpen-buru dena).

Muñoz, Josean  
Muñoz, Joxean

Etxegarai, Karmelo  
Echegaray, Carmelo de

Zumalde, Iñaki  
Zumalde, Ignacio

Muxika, Serapio  
Múgica y Zufiría, Serapio  
Mugica, Serapio

Arzallus, Xabier  
Arzallus, Javier

Arregi, Rikardo  
Arregi, Ricardo

Kadare, Ismael  
Kadaré, Ismail

d. Izenburuak ere ez daude bateratuta

Haize gorria (Maitasun eleberria gartzela paradisu bilakatzen denean)  
Haize gorria

Basauriko euskara  
Basauriko Euskara

Hakuna Matata  
Hakuna matata

Antzarra eta ispilua. (Obabakoak-ren irudimen mundua)  
Antzarra eta ispilua : Obabakoak-en irudimen mundua

e. Eta sarrera nagusia ere desberdina dute dokumentu bera izanik

Historia Zientzia ala literatura? (1995)  
Garzia, Pruden, Historia: zientzia ala literatura? (1995)  
Historia : zientzia ala literatura? (1995)

Universidad de Oñati. Biblioteca, Catálogo de obras impresas del siglo XVII... (1998)  
Luzuriaga Sánchez, Gerardo, Catálogo de obras impresas del siglo XVII... (1998)

Gipuzkoa. Diputación Foral, Compendio de las instituciones Forales de Guipúzcoa (1984)  
Etxegarai, Karmelo , Compendio de las instituciones Forales de Guipúzcoa (1984)  
Compendio de las instituciones forales de Guipuzcoa (1984)

La Universidad de Oñati a través de su Biblioteca... (1998)  
Luzuriaga Sánchez, Gerardo, La Universidad de Oñati a través de su Biblioteca... (1998)  
Luzuriaga, Gerardo, La Universidad de Oñati a través de su Biblioteca... (1998)

Arzallus, Javier, Entre el estado y la libertad (1986)  
Arzallus, Xabier, Entre el estado y la libertad (1986)

Makina bat dira autoritateen kontrol falta eta erregistroen kalitate eskasa erakusten duten adibideak. Hona hemen MARC formatuko batzuk:

100            20  
\$aDIPUTACION FORAL DE GUIPUZCOA  
245            10  
\$a1989 Txostena\$b = Memoria 1989

260 0  
SaSan Sebastian\$b : Gipuzkoako Foru Aldundia = Diputacion Foral de Guipuzcoa\$C, 1989  
300  
Sa222 p.\$b : il.\$c ; 30 cm  
710 10  
SaGIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA  
740 00  
Sa1989 Txostena

#### Beste bat

080 24  
Sa630\*61  
110 20  
SaGipuzkoako Foru Aldundia-Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentua  
245 10  
SaGipuzkoako mendien foru araua  
260 0  
SaDonostia\$b : Gipuzkoako Foru Aldundia\$C, L.G.1996  
300  
Sa55p.\$c ; 29,8cm. ;  
500  
SaAurkibidea

#### Beste bat

245 10  
SaI. LASARTE-ORIAKO Literatur Lehiaketa 1987 = I. Concurso Literario de Lasarte-Oria,1987  
260 0  
Sa[Lasarte-Oria]\$b : Lasarte-Oriako Udala\$C, D.L. 1988  
300  
Sa40 p.\$c ; 21 cm  
500  
SaPatrocina = Babestzailea, Gipuzkoako Foru Aldundia  
505 0  
SaContiene: Peke garratza / Zaldubi. - Ironia / María Arrate Saldias Artola. - Oficio de regresos / Virginia  
Imaz Quijera  
700 20  
SaZALDUBI  
700 20  
SaSALDÍAS ARTOLA, María Arrate  
700 20  
SaIMAZ QUIJERA, Virginia  
710 20  
SaLASARTE-ORIA\$b. Ayuntamiento  
710 20  
SaGIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

#### Eta beste bat

245 00  
SaESKOLARTEKO bertsolari gaztetxo VII. Txapelketa  
260 0  
Sa[Donostia]\$b : Gipuzkoako Ikastolen Elkarte\$a\$b : Gipuzkoako Foru Aldundia\$C, L.G. 1988  
300  
Sa47 p.\$b : il.\$c ; 23 cm  
650 4  
SaBertsolaritza\$j-Sariketak  
650 4  
SaBertsolarismo\$j-Certámenes  
710 21  
SaGipuzkoako Ikastolen Elkarte  
710 11  
SaGipuzkoa\$b. Foru Aldundia  
910 11  
SaGipuzkoa\$b. Diputación Foral  
910 21  
SaGipuzkoako Ikastolen Elkarte

- Gai-sarrerei dagokionez: katalogo hau egiteko aukeratutako formatuak (Ibermarc) eta liburutegiko programa informatikoak (Absys) aukera elebiduna ematen ez dutenez, erdiko bidea hartu behar izan da elebitasunaren auzia konpontzeko: erregistroen gai-sarrerak euskaraz eta gaztelaniaz jartzen lan handia egin da, eta horretarako MARC eremu bera (6XX) errepikatu da elebitasuna lortze aldera. Nahiz gai-sarrerei dagokienean itxuraz arazoa konponduta egon, irtenbidea txarra da, izan ere bi hizkuntzako kontzeptuak nahastu egiten dira eta, kontsultatzeko interfaze honekin behinik behin, aurkibideak kontsultatzeko aukerarik ez dago. Gai-sarreraren auzia Autoritateen Katalogoaren atalean sakonago aztertzen denez, ez gara hemen luzatuko.

650 4 \$aBionika\$JDoktoretza-tesiak  
650 4 \$aBiónica\$JTesis doctorales

650 4 \$aBigarren mailako irakaskuntza\$zEuskadi\$y1984-1985  
650 4 \$aEnseñanza secundaria\$zEuskadi\$y1984-1985

650 4 \$aNekazaritzako ustiapena  
650 4 \$aExplotaciones agrícolas

## ▲ 2.5. Autoritateen katalogoa edo datu-basea

Dakigun bezala, autoritateen kontrola egile baten izenaren forma desberdin guztiak bildu eta, erabiltzaileak modu batera zein bestera bilatuz gero, arazorik izan ez dezan egiten da. Katalogo honetan beste katalogoetan erabilitako egileak, erakundeak, biltzarrak, izenburu hautatu, leku-izenak eta gai-sarrerak kontrolatu behar ziren eta zegokien kasuetan elebidun jarri, euskaraz eta gaztelaniaz edo euskaraz eta frantsesez. Baina hemengo sarrerek ez dute beste katalogoetako sarrerekin loturarik. Beraz, nahiz eta katalogo honek egile baten izenaren forma bat hobetsi eta beste aldaera guztiak ez hobetsi, katalogo kolektiboa kontsultatzean ez da kontrol hori ematen eta egile beraren lan guztiak ezin dira edozein formatan sartutako izenarekin berreskuratu. Arestiko adibideak dira horren adierazle.

Inon ez da ageri sarrera baten forma onartu edo baztertzeko zein irizpide erabili diren, beraz lan tresna bezala ere funtzio mugatua du, datu-base honetan agertzen ez den egile, erakunde edo gai baten sarrera egokia aukeratzea ezinezko izango baitu liburuzainak.

Eta elebitasunaren gaiari helduta, arazoa gehiago korapilatzen da: lehenago aipatu den moduan, katalogo kolektiboa osatzen duten katalogoek Ibermarc formatua eta Absys programa informatikoa erabiltzen dute eta hauek katalogo elebidunak sortzeko aukerarik ez dute ematen. Horren ondorioz, fitxa katalogafiko berean eremu (etiketa) batzuk errepikatu beharko dira gaztelaniazko eta euskarazko formak jartzeko, baina informazioaren errepikapena eta kontrolik eza areagotzen ditu katalogatzerakoan.

Esan behar da esfortzu handia egin dela egile batzuekin. Adibidez,

### **Etxepare, Bernart** (SNBE. spa)

< Etxepare, Bernard  
< Dechepare, Bernard  
< Dechepare, Bernardo  
< Dechepare, Bernardum  
< Dechepare, Bernat  
< Detxepare, Bernard  
< Echepare, Bernard d'  
< Echepare, Bernat d'  
< Echepare, Juan Bernard d'

Eta beste batzuekin hasi besterik ez dela egin:

Leizarraga, Joannes

Jatorria/Fuente: SNBE. spa

Nabarmenak dira hutsuneak: ez dira ez Joanes Etxeberri ez Mogel agertzen, ez euskal ez erdal grafiarekin. Egile espainolak, berriz (Cervantes, Machado), ederki jasota daude, Espainiako Ministerioarekin elkarlanean garatzen ari den datu-basearen laguntzaz burutu baita.

Badira batzuk euskaraz jarrita daudenak, baina erdal grafiarik eman gabe: Jon *Echaide* edo Nemesio *Echaniz*, ez dira agertzen, *ch* sartu beharrean *tx* bakarrik sartu delako (Etxaide, Etxaniz); ezta *Urquiaga* ere (Urkiaga bakarrik sartu da).

Etxaniz, Nemesio (SNBE. spa)  
< Etxaniz, N.

Lauaxeta (SNBE. spa)  
< Urkiaga, Esteban  
< Urkiaga, Esteban  
< Urkiaga Basaraz, Esteban

Dirudienez autoritateen katalogoa bi hizkuntzetan garatu asmo dute, gaztelaniaz eta euskaraz, baita pertsona izenen kasuan ere.

SNBE *Sistema Nacional de Bibliotecas de Euskadi*-ri dagokio, Jaurilaritzaren Liburu eta Liburutegi Zerbitzuaren identifikazioa da, liburutegien arteko trukeari begira jarritakoa (autoritateen kontrola kudeatzen duten agentzia katalogafiko guztiek erabiltzen dituzte horrelako akronimoak euren erregistroak *sinatzeko*). Dakigunez *spa* nazioartean onartutako *spanish* delakoaren laburdura da, *baq*, berriz, *basque*-rena.

Esan behar dugu zalantza handia daukagula erabaki horren egokitasunaz (izen berezietarako bi erregistro ematea, gaztelaniaz bata eta euskaraz bestea). Izan ere, gaztelaniazko autoritateak Espainiako Biblioteka Nazionalak kudeatzen ditu. Zer dela eta hasi behar dugu hori bera hemen egiten? Ederki dakigu nola katalogatu behar den gaztelaniaz, horretarako ez dugu Jaurilaritzaren beharrik. Hainbat kasutan gainera absurdoa da, espainolak ez direnei ere aplikatzen baitiete

Lafitte, Piarres (SNBE. spa)  
< Lafitte, Pierre  
< Lafitte Ithurralde, Piarres  
< Lafitte Ithurralde, Pierre  
< Lafitte, P.

Erakundeen forma onartuak errepikatu egiten dira euskaraz eta gaztelaniaz, eta, nahiz eta erakunde baten izen ofiziala hizkuntza bakarrean egon, bi forma izango ditu erakunde hori kokatzen den herriaren izena ezberdina bada euskaraz eta beste hizkuntzaz. Adibidez,

Itsas Enara Ornitologi Elkarte (San Sebastián) (SNBE. spa)  
< Itsas Enara Ornitologi Elkarte (Donostia - San Sebastián)  
Itsas Enara Ornitologi Elkarte (Donostia) (SNBE. baq)

AED Kultur Elkarte (Mondragón) (SNBE. spa)  
AED Kultur Elkarte (Arrasate) (SNBE. baq)

Erakundeen izen ofizialak batzuetan ez datoz bat hemen hobetsitako sarrerarekin:

Euskal Herriko Bertsolari Elkarte (SNBE. baq)  
(Izatez, Euskal Herriko **Bertsozale** Elkarte da izen ofiziala)

Teknikoki ere eztabaidagarriak dira beste hainbat gauza. Ondoko erregistroan, lehenetsi egin dute katalogatzeko arauen arabera alternatiboa beharko lukeen sarrera hau:

aGipuzkoa\$b. Diputación Foral\$b. Departamento de Cultura y Euskera (sarrera alternatiboa)

aGipuzkoa\$b. Departamento de Cultura y Euskera (sarrera nagusia)

Autoritateen Katalogoa (EJ):

Gipuzkoa. Diputación Foral. Departamento de Cultura y Euskera  
< Gipuzkoa. Departamento de Cultura y Euskera  
= *Gipuzkoa. Foru Aldundia. Kultura eta Euskara Departamentua (baq)*

Biltzar, erakusketa, hitzaldi eta abarren sarrera hobetsiak ere biltzen dira. Biltzar guztiek bi sarrera dituzte, nahiz eta izen ofiziala bakarra izan, parentesi artean doana euskaraz eta gaztelaniaz ezberdina baita:

Euskaltzaindia. Biltzarra (13º. 1994. Leioa) (SNBE. spa)  
Euskaltzaindia. Biltzarra (13.a. 1994. Leioa) (SNBE. baq)

Elebitasuna ez dago oso zaindua beste etsenplu honetan ere: nahiz eta mundu mailako biltzarra izan, gaztelaniazko izena bakarrik onartu da:

Conferencia Mundial sobre las Mujeres (4º. 1995. Pekin) (SNBE. spa)  
< Conferencia Mundial de Naciones Unidas sobre las Mujeres (4º. 1995. Pekin)  
Conferencia Mundial sobre las Mujeres (4.a. 1995. Pekin) (SNBE. baq)  
< Conferencia Mundial de Naciones Unidas sobre las Mujeres (4.a. 1995. Pekin)

Gai-sarrereren kasuan, erabilgarritasuna eskasagoa da eta bilaketarako argibiderik egon ezean hainbat zalantza sor litezke.

Edozein bilaketa eginda ere, aurkitutako zerrenda ez dago alfabetikoki ordenatuta:

Euskara-Alderdi sozialak (SNBE. baq)  
Euskara-Alderdi soziologikoak (SNBE. baq)  
<< -g Soziolinguistika  
Euskara-Alderdi politikoak (SNBE. baq)  
<< -g Hizkuntzak -Alderdi politikoak  
Euskara-Normalizazioa (SNBE. baq)  
Euskara-Atlasa (SNBE. baq)  
Euskara-Biltzarrak eta batzarrak (SNBE. baq)  
Euskara-Hizketa eta esaldiak (SNBE. baq)  
<< Ahozko euskara  
Euskara-Egokitasunak (SNBE. baq)  
Euskara-Zuzenbidea (SNBE. baq)  
Euskara-Hiztegiak (SNBE. baq)

Bilaketan aukeratutako hitzaren eta erabilitako eremuaren arabera, emaitzak arraroak gerta litezke. Adibidez, XX. mendea (XX) "*Edozein eremu*" eremuan idatziz gero, hau da emaitza:

Euskadi-Historia-Crisis del Siglo XX, 1929 - 1945 (SNBE. spa)  
Euskadi-Historia-XX Mendeko Krisialdia, 1929 - 1945 (SNBE. baq)  
-s. XX (SNBE. spa)  
-XX. mendea (SNBE. baq)  
Tusell, Javier-. El siglo XX (SNBE. spa)  
Palu, Pascal-. Zuberoako basoa eta gizarte XIX. eta XX. mendeetan (SNBE. spa)  
-s. XIX-XX (SNBE. spa)  
-XIX-XX. mendea (SNBE. baq)  
-s. XVII-XX (SNBE. spa)  
-XVII-XX. mendea (SNBE. baq)

Arraroa diogu, emaitzen artean gai-sarrerak egonik bilaketa berdina *Gaia* eremuan eginez gero, emaitzarik ez dagoelako. Honen zergatia bilatzen hasita, hipotesiak ugariak izan litezke baina profesionalagoa litzateke honelako proiektu batek, hipotesietan ibiltzera bultzatu gabe, benetako azalpenak eskainiko balitu.



Hego Euskal Herriko liburutegi publikoetan hain ezagunak diren Espainiako Kultur Ministerioko *Lista de Encabezamientos de Materia* erreferentziatzen hartuta ere, ezin liteke esan gaien datu-base honek erabilgarritasun handiagoa duenik. Paper-formatuak dituen abantailak eta teknologia berriek eskaintzen dituzten abantailak falta ditu: batetik, lan osoaren dimentsioa ezin da hartu eta eskuragarritasuna konexio telefonikoaren menpe gelditzen da; eta bestetik, dinamismoa falta zaio: gaisarrera baten azpian agertzen diren terminoek ez dute sarriderik.

**Emakumeak** (SNBE. baq)

- < Andreak
- < Emakumea
- << Emakumeen elkarateak
- << Emakumearen hezkuntza
- << Ginekologia
- << Misoginia
- << -h Amak
- << -h Emakume ezkonduak
- << -h Emakume dibortziatuak
- << -h Emakume haurdunak
- << -h Emakume ezkongabeak
- << -h Neskatxak

Sarrera honek beste 10 sarrerekin zerikusia izan arren, ezin da batetik bestera *nabigatu*

## ▲ 2.6. Euskaraz Katalogatzeko Arauak

Arau hauei buruz web orrian zer esaten den:

*“Liburu eta Liburutegi Zerbitzuaren funtsezko helburuetariko bat, ezbairik gabe, liburutegien arlo guztietan euskararen erabilera normaltzea da. Horrenbestez, ezinbestekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoari erantzuteko behar diren tresna teknikoak taxutzea.*

*Ildo horretan, nahitaezkozkat daukagu euskaraz katalogatzen eta dokumentuak analizatzen laguntzeko irizpide normalizatzaileak eratzea. Hala bada, Liburu eta Liburutegi Zerbitzuak arau katalogafiko horiek moldatzen dihardu, Anglo-American Cataloging Rules, Second edition (1998) direlakoak erreferentziatzen hartuta eta geure hizkuntzaren berezko ezaugarrietara egokituta.*

*Lehenengo fase honetan, deskripzio bibliografikoaren arau orokorren kapituluak azalduko dugu. Gerora, gainerako kapituluak egiten goazen eran, atal honetan sartuz joango gara, arian-arian. Dituzuen iradokizun eta zalantza guztiak gustura jasoko ditugu Liburu eta Liburutegi Zerbitzuan. Arretaz aztertuko ditugu, eta, hartara, proiektuari osotarako erantzuna ematen saiatuko gara”.*

Gure ustez, kontsultarako erabilgarritasun eskasa duen formatuan eginda egoteaz gain, bukatu gabeko lana dela argi gelditzen da sarrera horretan. Beraz, nahiz eta arau bezala aurkeztu, arauen zati txiki bat besterik ez dute jasotzen, euskaraz katalogatzen hasteko nahikoa ez dena. Falta den lanaren ideia hobeto jasotzeko hona hemen *Anglo-American cataloguing rules*-en aurkibidea:

### *Part I, Description*

#### *Introduction*

1. *General Rules for Description (hau da orain euskaraz ageri dena)*
2. *Books, Pamphlets, and Printed Sheets*
3. *Cartographic Materials*
4. *Manuscripts (Including Manuscript Collections)*
5. *Music*
6. *Sound Recordings*
7. *Motion Pictures and Videorecordings*
8. *Graphic Materials*
9. *Computer Files*
10. *Three-Dimensional Artefacts and Realia*
11. *Microforms*

- 12. *Serials*
- 13. *Analysis*

*Part II, Headings, Uniform Titles, and References*

*Introduction*

- 21. *Choice of Acces Points*
- 22. *Headings for Persons*
- 23. *Geographic Names*
- 24. *Headings for Corporate Bodies*
- 25. *Uniform Titles*
- 26. *References*

*Appendices*

- A. *Capitalization*
- B. *Abbreviations*
- C. *Numerals*
- D. *Glossary*

*Index*

Beraz, *Euskaraz Katalogatzeko Arauak* izendatutako hauek, lehenengo kapitulua bakarrik hartzen dute (*General Rules for Description*), beste 18 atal falta zaizkie osatuak izateko. Eta hori gutxi balitz, lehenengo kapitulu horretan oraindik itzuli gabe dauden eranskinetara bidaltzen duten erreferentzia ugari dago: letra larriak erabiltzeko A eranskina; laburdurentzako B eranskina; zenbakientzako C eranskina; eta glosategia, D eranskina.

Jakina denez, mintegi honek euskaraz katalogatzeko oinarrizko terminologia burutu du HAEeko Itzulpen Zerbitzu Ofizialaren onespenearekin. Mintegiak egindako lanaz baliatu bai, baina ez da mintegiaren aipamenik egiten. Bestalde, gehienetan ez bada ere, zenbaitetan terminologia ez dator bat mintegiak argitaratutakoarekin (Ikus: Joana Albret Bibliotekonomia Mintegia. *Katalogatzeko oinarrizko terminologia*. Oñati : Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2001). Hona hemen kasu batzuk :

| <b>Deskribapenerako arau orokorrak</b>             | <b>Katalogatzeko oinarrizko terminologia</b> |
|--|--|
| Izenburua eta erantzunkizunaren aipamenaren eremua | Izenburuaren eta erantzunkizunaren eremua    |
| Izenburu paraleloak                                | Pareko izenburuak                            |
| Edizio-eremua                                      | Edizioaren eremua                            |
| Zenbaki estandarra                                 | Zenbaki normalizatua                         |
| Saila  | Seriea                                       |
| Azpisaila  | Azpiseriea                                   |
| Argitalpen-saila                                   | Argitalpen seriatua                          |
| Gako izenburua                                     | Izenburu hautatua                            |

Euskarari dagokionez, honelako akatsak daude:

**Erantzunkizuna**  
**Babesorria**

Erantzukizuna  
Babes-orria

## ▲ 2.7. Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren aurkezpena

Liburu eta Liburutegi Zerbitzuaren web orriaren atal bat Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalari dagokio (<http://www.kulturaondarea.org/libroybibliotecas/03default.htm> ). Izen arras potoloa badu ere, errealitatea askoz ere eskasagoa da. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia soilik hartzen ditu lan eremutat eta ez dago liburutegi sistematzat hartzerik:

1. EAEko liburutegi kopuru handi bat bazter uzten du: Foru Aldundikoak, unibertsitate liburutegiak, liburutegi bereziak, horien artean osasun arloko liburutegi guztiak (Osakidetzakoak barne)...

2. Kontuan hartzen dituen liburutegiei, udaletako herri liburutegiak gehienbat, zerbitzu maila oso apala eskaintzen die, inolaz ere ez gidaritzarik, ez elkarrekin lan egiteko egiturarik, ez eta UNESCOren manifestuak aldarrikatzen duena ere: "*Nazio mailan liburutegiek elkarrekin eta batera lan egin dezaten bermatzeko, legeria eta egitasmo estrategikoek nazioko liburutegi sarea egituratu eta bultzatu behar dute, elkarren artean hitzartutako zerbitzu arauetan oinarritua. Herri liburutegien sarea diseinatu behar da liburutegien elkar eragina gogoan hartuz: liburutegi nazionala, herrialdekoak, ikerketa liburutegiak eta bereziak, eta baita eskola, ikastetxe eta unibertsitatekoak ere.*"

3. Ez dago EAE-n *informazioaren gizarteak* eskatzen duen liburutegiak bultzatzeko politikarik. Web gunean agertzen den *Eusko Jaurlaritzaren liburutegi politika* izeneko artikulua EAE-n liburutegiak garatzeko politika ezaren aitormena baino ez da. Liburutegi legeriarik gabe, lan tresnak doitu gabe, profesionalak trebatzeko edota sortzeko ahalegin sendorik egin gabe (web gunean agertzen diren ikastaroen berri 2000 urtekoak dira, eta ia bakarrik ABSYS programan trebatzeko), liburutegien elkarlana baztertuz, soilik herri liburutegiei begiraturaz, bibliografia nazionalaren beharra ahaztuz, helburuak finkatu gabe, plan estrategiko orokor zein atalekoak sortu barik, eginkizun guzti hauen gidaritza hartuko lukeen Euskal Herriko Liburutegi Nazionalik gabe...norbaitek esan lezake badagoela Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalik?

## ▲ 2.8. Web gunearen euskararen kalitatea

Itxura batean, web gunea lau hizkuntzatan dago: euskara, espainiera, frantsesa eta ingelesa. Aukera garestia, baina oso interesgarria, baldin eta jatorrizko bertsioa euskarazkoa balitz, edota kalitatea bermatzeko ahalegina euskarazko bertsioan egiten bada. Tamalez, ez dirudi hala denik. Kasuistika nahikoa zabala da, baina zerrenda sistematikoa osatu nahi gabe hona hemen web gunean euskaldunak topa dezakeen zenbait hutsune eta oker:

1. Web gunearen hizkuntz erreferentziala espainiera da. Espainieraren nagusitasuna atal askotan nabaritzen da. "*Euskadiko liburutegien direktorioa*" begiratzea baino ez dugu : liburutegien izenak eta helbideak espainieraz daude, eta agertzen diren liburutegien web guneen URLak espainierazko bertsiora bideratzen dute ia beti. Web guneke ingelesezko zein frantsesezko bertsioak aukeratzekotan hizkuntza horietan ez dagoena, katalogoan bilaketak egiteko inprimakiak adibidez, espainieraz azaltzen da...

2. Euskaratze lanak espainiera ardatz hartuta egin dira, kasu askotan testuak ulertezinak bihurtzeraino. Merezi du ikustea nola euskaratu diren bibliotekonomian erreferentzialak diren zenbait testu. Jarraian dauden testu zatiak adibideak baino ez dira; jatorrizko hizkuntza ingelesa da, eta euskarazko bertsioa itzulpen baten itzulpen ganorabakoa da (espainiera tartean). Froga moduan saia zaitezte lehenago euskarazko bertsioa irakurtzen (hirugarrena da):

a. UNESCOren herri liburutegiaren manifestuan:

1- Ingelesez: "6. Providing access to cultural expressions of all performing arts." ("Missions of the Public Library" atalean).

2- Espainieraz: "6. Facilitar el acceso a las expresiones culturales de todas la manifestaciones artisticas."

3- Euskaraz: "6. Arte-agerpen guztien kultur adierazpenak ulertzea."

1- Ingelesez: "11. Facilitating the development of information and computer literacy skills" ("Missions of the Public Library" atalean).

2- Espainieraz: "11. Facilitar el progreso en el uso de la información y su manejo a través de medios informáticos".

3- Euskaraz: "11. Informazioaren erabilerari dagokionez, informatika-bitartekoen bidez aurrerapena erraztea".

b. Europako Kontseilu eta EBLIDAKo orientabideak Europako liburutegi politika eta legeriarako dokumentuan:

1- Ingelesez: "The current guidelines underline the necessity of: (...) -Striking a balance between the interests of all individuals and corporate bodies concerned and the different categories of book and information professionals."

2- Espainieraz: "En las presentes Pautas se subraya la necesidad de: (...) -Lograr un equilibrio entre los intereses de todas las personas y entidades afectadas y las distintas categorías de profesionales del libro y la información."

3- Euskaraz: "Arau hauetan ondoko premiak azpimarratzen dira: (...) -Kaltetutako persona eta erakunde guztien interesen, eta liburuaren eta informazioaren arloetako profesionalen mailen artean oreka lortzea."

1- Ingelese: "Minorities should be provided with material in their own language, relating to their own culture, reflecting the culture of the wider community to them in their own language. Furthermore, library collections should represent the cultures of minorities to the wider community."

2- Espainieraz: "Se facilitará a las minorías material en su propia lengua, relacionado con su propia cultura e ilustrativo, en su propia lengua, de la cultura de la comunidad más amplia de la que formen parte. Además, en las colecciones figurarán obras sobre las culturas de las minorías al conjunto de la comunidad."

3- Euskaraz: "Gutxiengoei, euren hizkuntzan dagoen materiala eskainiko diete. Material hori, bertako kulturarekin lotuta eta euren komunitate zabalagoaren kulturari ilustratuta egongo da, hau ere bertako hizkuntzan."

1- Ingelese: "Future research and investigation is needed in order to explore the legal, technical and financial aspects of legal deposit of electronic publications."

2- Espainieraz: "Es necesario llevar a cabo estudios que permitan analizar los aspectos jurídicos, técnicos y financieros del depósito legal de publicaciones electrónicas."

3- Euskaraz: "Argitalpen elektronikoen lege-gordailuaren alderdi juridikoak, teknikoak eta finantzarioak analizatzen utziko duten ikasketak egin behar dira."

### c. Eskola Liburutegiaren Manifestuan:

1- Ingelese: "The school library is an essential partner in the local, regional and national library and information network."

2- Espainieraz: "La biblioteca escolar es un colaborador esencial en las redes locales, regionales y nacionales de bibliotecas y de información."

3- Euskaraz: "Liburutegi eskolarrak oinarritzko laguntza ematen du, liburutegietako eta informazioko tokiko, eskualdeko eta naziozko sareetan."

1- Ingelese: "The school librarian is the professionally qualified staff member responsible for planning and managing the school library, supported by as adequate staffing as possible, working together with all members of the school community, and liaising with the public library and others."

2- Espainieraz: "La responsabilidad de la biblioteca recaerá en aquel miembro del equipo escolar cualificado profesionalmente para hacerse cargo de la planificación y funcionamiento de la biblioteca escolar, con la ayuda del personal de apoyo necesario. Este profesional trabajará con todos los miembros de la comunidad escolar y en contacto con la biblioteca pública y con otros centros."

3- Euskaraz: "Beharrezko pertsonalaren laguntzarekin, liburutegi eskolarraren plangintzaz eta funtzionamenduaz arduratzeko profesional-mailan prestatuta dagoen eskola-ekipoko kide batek hartuko du liburutegiaren ardura. Profesional horrek komunitate eskolarreko kide guztiekin lan egingo du, eta beti ere liburutegi publikoarekin eta beste zentroek erabilitako harremanetan."

3. Espainieraren nagusitasuna leuntzeko edo, euskaratu behar ez dena euskaratzen da: *Aldizkari elektronikoa* atalean honako aldizkariak topa daitezke: "RedIRISen Boletina" (*Boletín de la Red Iris* beharrean), "BiD: Bibliotekonomia eta Dokumentazioko unibertsitateko testuak" (*BiD. Textos universitarios de bibliotekonomia i documentació* beharrean)...

4. Web gunearen ulergarritasunean gehiegi sakondu gabe, nonahi topatzen dira itzulpen "bitxiak". Adibide bat: katalogoan bilaketak egiteko inprimakian goi-ekerraldean espainierazko bertsioan botoi hau agertzen da: "Sesion abrir/cerrar"; euskarazkoan, aldiz, hau irakurtzen dugu: "Sesioa ireki/itxi". Gogora ekarriko dugu HAEEK berriki argitaratu duen *Zalantza-dantza*<sup>3</sup> liburuxkak dakarren argibidea (55 orrialdean): "SAIO/SESIO: Ez dute esanahi bera. Hau da, saio hitzaren esanahiak badu nolabaiteko lotura saiatu edo jardun aditzek dutenarekin. Aldiz, sesio besterik da: iskanbila, kalapita, astrapala... Udaleko gaurko saioan (jarduna) egundoko sesioa (iskanbila) izan da'."

## ▲ 3. Ondorioak

**Euskadiko Liburutegien Direktoria** osatu gabe dago, baina oinarritzat hartuta sarean egoteak ematen duen aukera erabil daiteke datu-bilketa egiteko: direktorio hau erreferente bihurtuz gero, zentro edo liburutegi bakoitza arduratuko da bere datuak bidaltzeaz, bertan agertzea interesatuko baitzaio. Hala ere, beharrezkoa litzateke atzemandako arazoak (zenbait liburutegiren izenak gaztelania hutsean) lehenbailehen konpontzea.

---

<sup>3</sup> *Zalantza-dantza*. Herri arduralaritzaren euskal erakundea. Oñati, 2000.

**Dirulaguntzen** informazioa ondo egon arren balio erantsi bat gehitu beharko litzaioke: interesatuta daudenak bere posta elektronikoan deialdien berri jasotzeko aukera.

**Estatistikak** egiteko behar diren datuak jasotzen EAeko udal liburutegiek egiten duten ahaleginaren ondoren, oraindik Estatistika Programaren helburuak erantzun beharko luken aspaldiko galdera hor dago, erantzunaren zain: zein da Erkide Autonomoko liburutegien benetako egoera eta zein izan behar da egoera horri aurre egiteko liburutegi-politika?

**Katalogo Kolektiboari** buruz, proiektuaren izena bera da arranditsua, *Euskadiko Liburutegien Katalogo Kolektiboa*: orain arte behintzat liburutegi gutxi batzuk besterik ez dute parte hartzen (76 bat inguru). Lan guzti honi buruzko informazio falta nabarmendu behar da: helburuei buruz, lan prozedurei buruz, liburutegi partehartzaileei buruz, katalogo kolektiboa osatzen duten katalogo bakoitzaren edukari buruz (erregistro kopurua, aleak, eguneratzeak,...), eta abar. Eta informazio gabezi honek eragin txarra izan ahal du oraindik proiektuan sartu gabe dauden liburutegietan. Taxuzko informazioa eta koordinazio plana beharrezkoak dira.

Katalogoaren forma eta edukia aztertu ondoren, argi gelditzen da ez dela katalogo kolektiboa, hainbat katalogoren nahasketa baizik: katalogazio irizpideak desberdinak dira eta ez dira bateratu, kontrol eta kalitate falta nabarmena da. Katalogoen artean homogeneousiaziorik eta koordinaziorik ez bada ematen, liburutegi gehiagoetako katalogoak sartzen doazen heinean kaos handia sortuko da, bai bilaketak egiteko momentuan eta baita liburuzainen lana erraztu nahian erregistroak kopiatzeko eskaintzen den Z39.50 protokoloa erabiltzerakoan: dokumentu berak hamaikatxo erregistro izango ditu, denak ezberdinak.

Eta elebitasunari buruz, bi puntu: batetik, katalogo kolektiboa osatzen duten katalogoetako hizkuntza gaztelania da, erregistro batzutan izan ezik; eta bestetik, erregistroetan jasotako gai-sarrerak euskaratzen lan handia egin da, baina katalogoak erabilitako formatuak (Ibermarc) eta programa informatikoak (Absys) ez dute elebitasunaren auzia konpontzen eta, ondorioz, eremuak errepikatuta dituzten erregistro elebakarrak sortuko dira, nahasmen eta kontrol gabezi handiarekin.

**Autoritateen katalogoak** ez du katalogo kolektiboarekin loturarik: beronen helburu den autoritateen kontrolik ez da ematen. Etorkizunean erabiltzeko lan-tresnatzat hartu ahal izateko sakoneko akatsak zuzendu beharko dira:

Formatu aldetik, kontsulta sistema ez da egokiena (ikus azterketa) eta momentuz behintzat sarean bakarrik aurkitu daiteke, horrek dituen desabantailekin. Eduki aldetik, sarrerak hobesteko erabilitako irizpideak eztabaidagarriak izateaz gain, ez dira kaleratu eta, beraz, bilatzen den sarrera datu-basean ez badago (proiektu berria izanik sarritan gertatuko dena) liburuzainak ez du izango hobegarria den sarrera bat sortzeko baliabiderik. Eta elebitasunaren auzia ere konpontzeke dago, lehenago azaldu diren arrazoiengatik.

**Euskaraz Katalogatzeko Arauak** deitutakoei buruz, honi ere izena handiegi gelditzen zaio: arauen zati txiki eta oinarritzakoena euskaratu da (deskribapenerako arau orokorrak). Harrigarria da lana bukatzeko hainbeste falta delarik web gunean jarri izana, batez ere oinarrian itzulpen lana moldaketarena baino handiagoa izaki.

Beste aldetik, zera azpimarratu nahi dugu: honelako lan bati beste metodologia batez heldu behar zitzaiola, hau da, urteetako esperientzia duten liburutegi handienei elkarlana proposatuz, lan talde finko eta aditua osatuz, jatorrizko dokumentuak katalogatzeko eguneroko lanean oinarrituz

Herrialde gehienek bere Katalogatzeko Arauak dituztela jakinda, herri hauek beraien arauak sortzeko erabilitako metodologia ezagutzea nahikoa da Euskadiko Liburu eta Liburutegi Zerbitzuak duen proiektuari oinarria falta zaiola konturatzeko: erakunde bibliotekarien arteko elkarlana, profesionalen adostasun minimoa.

Beste aldetik, politika katalogafikoari buruzko teorizazio falta nabarmena bezain larria da. Esaterako, nolako katalogoak eskaini behar dira udal biblioteketan? Eredu bera jarraitzen duten katalogo elebidunak toki guztietan? Elebidunak edo euskara hutsezkoak tokiaren arabera? Zein irizpide jarraitu beharko dute liburutegi nagusi edo espezializatuetan? Bibliotekarien esku geratuko da ala gomendio edo agindu zuzenik jasoko dute Liburu eta Liburutegi Zerbitzuarengandik?

## ▲ 4. Laburki

Euskadiko Liburu eta Liburutegi Zerbitzuak martxan jarri duen ekimena beharrezkoa da, noski, baina oinarri sendoagoak behar ditu honelako lan batek mesedegarria izan behar dena kaltegarri bihurtu ez dadin. Orain arte azaldu diren Katalogo Kolektibo Elebiduna, Autoritateen Katalogoa eta Euskaraz Katalogatzeko Arauak ez dira ez kolektiboak, ez elebidunak, ez kontrolatzaileak eta ez dituzte ezta irizpide komunik ere. Litekeena da euskal liburutegietan euskaraz lan egiteko dauden arazoak konpontzen lagundu baino nahasmen handiagoa sortzea.

Liburu eta Liburutegi Zerbitzuan lanean dihardutenen ahalegina gutxietsi gabe, arestiko guzti hori agintarien planifikazio falta eta interes gabeziaren ondorio direla iruditzen zaigu.

- Estatistika Programak koordinatua behar du izan, udal liburutegiez gain beste zentroak ere aztertuko dituena. Ahaztu gabe, jakina, bere helburu propioa: emaitza estatistikoek erakutsitako egoerari aurre egiteko liburutegi politika diseinatzeko egiten dela.
- Katalogo Kolektiboaren proiektuan zera behar da: homogeneizazioa (autoritateen kontrol erreala), proiektuari buruzko informazioaren zabalkundea beste liburutegiak sartu ahal izateko, eta egiazko elebitasuna lortzea.
- Euskaraz Katalogatzeko Arauak osorik eta benetan: itzulpena da, ez Euskal Herriko bibliografia-funtsean oinarritutako moldaketa, eta horretan lanean ari diren liburutegien esku hartzea eta kolaborazioa oso lagungarri gertatuko litzateke.

Horiek denak burutzen hasteko, liburutegien arteko koordinazioa eman behar da, Liburu eta Liburutegi Zerbitzuarekin elkarlanean liburutegi handi bat (edo batzuk) buru jarri, "laborategi" moduan hasieran batean, gerora beste guztien erreferentea izan daitekeen jarduera batean...

Joana Albret Bibliotekonomia Mintegian hainbat aldiz errepikatu dugun bezala, erakunde bibliotekari duinak behar ditu euskal biblioteken alorrak. Hitz gutxitan esateko, mundu zabalean onartzen diren parametroetara hurbildu behar genuke guk ere, dagoeneko normalizatuta dagoena besterik ez baitugu behar.